

SUPER BAT GO!AZEN

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok, aurrerantzean LABORAL Kutxa, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, nazio-mailako ZOZKETA bat egingo du, sustapen-helburuetarako, 16 urtetik beherako bezeroen artean, www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak web-orriko 5. atalean —"parte-hartzaileak" izenekoan— xedatutakoaren arabera. Zozketan parte hartzeko, dagokion formularioa bete beharko da, LABORAL Kutxaren webgunean, SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuaren titularra izanda. EHUN ETA BERROGEITA HAMAR (150) baimen eskusibo zozkatuko dira, GO!AZEN 7.0ren online aurrestreinaldia streaming pribatu bidez ikusteko.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko ez da kuota edo kopuru gehigarri ordaindu beharko.

3.- Zozketaren xedea eta prozedura:

Zozketa bat (1) egingo da, eta zozketa horretan ehun eta berrogeita hamar (150) baimen eskusibo banatuko dira, 2020ko azaroaren 6an GO!AZEN 7.0ren online aurrestreinaldia streaming bidez ikusteko. Kode bakarra bidaliko da, pertsonala eta besterenezina, irabazlearen posta elektronikora.

Zozketan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte erabiltzaileek:

- Zozketan parte hartuko dute egoitza Espainian duten 16 urtetik beherako bezeroek (pertsona fisikoek), baldin eta horien legezko ordezkariak LABORAL Kutxaren SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuen titularrak badira. Parte hartzeko formulario bat bete beharko dute webgunean. Zozketaren Lege Oinarrietan adierazitako parte-hartze prozedura bete beharko dute bulego batean edo LABORAL Kutxaren webgune honetan bertan: www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak.
- Irabazleak saria onartzeak eskubidea ematen dio LABORAL Kutxari haren izena eta sari-banaketako argazkiak —halakorik balego— LABORAL Kutxak egoki deritzen baliabide telematikoetan edo bitarteko inprimatuetan argitaratzeko, betiere zozketaren emaitza ezagutarazteko xedez.

4.- Iraupena eta Eremua

Jarduera hau Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Zozketan parte hartzeko epea 2020ko irailaren 28tik 2020ko urriaren 15era bitartekoa izango da, biak barne.

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan:

– Bizilekua Espainian duten 16 urtetik beherakoek, baldin eta haien legezko ordezkariak LABORAL Kutxaren SUPER BAT haurrentzako aurrezki-kontuen titularrak badira.

Honako hauek ezingo duten parte hartu zozketan:

– LABORAL Kutxako langileek, baita taldeko, partaidetzako eta antzeko sozietatekoek eta kanpainarekin zerikusi zuzena duten pertsonak ere.

LABORAL Kutxako bezeroek ez dute partaidetzarik eskuratzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango, baldin eta:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo bestelako irregulartasun-egoeran badaude zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria ematen den unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzen badute zozketan.

6.- Irabazlea/ak eta ordezkioak aukeratzea, saria jakinaraztea eta ematea

Aurreko 3. atalean zehaztutako sarien zozketa 2020ko urriaren 16an egingo da, sistema informatiko aleatorio baten bidez.



Arrazoi justifikatu bat dela eta, zozketa ezin bada egun horretan egin, hurrengo egun baliodunean egingo da. Saridunek saria onartzen duten ala hari uko egiten dioten berretsi beharko dute, eta berariaz jakinarazi beharko diote hori LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegoetan sinatutako hartu-agiri baten bidez, saria argitaratu eta/edo jakinarazten den egunetik egun natural bateko (1) epean gehienez ere. Entitateak bere datu-basean jasota dituen bezeroen datuak erabiliko dira horretarako.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio edo zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean ezin izan bada berarekin harremanetan jarri, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Saritutako bezeroak saria errefusatzen badu edo hari uko egiten badio, zozketa egiten denetik 3 egun balioduneko epean ezin izan bada berarekin harremanetan jarri, zozketako baldintzak betetzen ez baditu edo aurretik adierazitako baimena ematen ez badu, erreserba-zerrendako lehen postuan dagoen parte-hartzaileari esleituko zaio saria, zozketatik ateratarako zerrenda-ordena errespetatuz betiere. Gehienez hamar (10) ordezkio egongo dira. Saridunak ezingo du sari horren ordezkio beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hil bada, berariaz horretarako aukeratutako ordezkioari emango zaio saria.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZaren zerga-araudian aurreikusitakoa. Sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipeanri dagokio zenbatekoa LABORAL Kutxak ordainduko du.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkinak edo iritziak argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desegokitzat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzaizkete. Era berean, ez da onartuko partikular baten aurkako iruzkinik, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen printzipioak urratzen baditu. Ez dugu gure gain hartuko inolako erantzukizunik parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinak eragindako kalteen ondorioz, nahiz eta horiek beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mindu.

9.- Erreserbak eta mugak

Adierazpen gisa, baina ez muga gisa, iruzurra egin dela ulertuko da honako kasu hauetan: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio, eta itxuraz gehiegizkoak eta/edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira. Zozketan zehar gorabehera horietakoren bat gertatu dela egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geldituko da automatikoki, eta saria galduko du, eman bazaio.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko, baldin eta saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik saria ematean edo hori erabiltzean gerta litezkeen gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gerta litezkeen atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki baina ez esklusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean gerta litezkeen akatsengatik gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean gerta litezkeen kalte-galeren ondorioz.



10.- Datuen babesa

Zure datuen tratamenduaz arduratzen den enpresa LABORAL Kutxa da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak bere datu pertsonalak tratatuko dituela, zozketan parte hartzea tramitzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalak tratatzeko pertsona fisikoak babesteari eta datuen zirkulazio libreari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegian eta datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/29018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Aipatutako jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, zure nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiria emanez) eta honako helbide elektroniko honetara idatziz: protecciondatos@laboralkutxa.com; edo, bestela, ohiko postaren bidez honako helbide honetara idatziz: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur dezakezu:

www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa

11.- Oinarriak onartzea.

Zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo haietako batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa betetzeko beharrik izango. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa.

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.